



*Bigarren Lehendakariodea eta Lan eta Enpleguko Sailburua  
Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo*

**AGINDUA, 2021EKO MAIATZAREN 10EKOA, BIGARREN LEHENDAKARIOEDE ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ BERMATZEN BAITA ARABAKO EGOITZA PRIBATUEN ETA ETXEBIZITZA KOMUNITARIOEN SEKTOREAN GIZARTEARI EMATEN ZAION FUNTSEZKO ZERBITZUARI EUTSIKO ZAIOLA 2021EKO MAIATZAREN 12, 19 ETA 26RAKO DEITUTAKO GREBAN.**

ELA, LAB, UGT eta CCOO sindikatuek greba deitu dute «Arabako egoitza pribatuen eta etxebizitza komunitarioen» sektorean, 2021eko maiatzaren 12, 19 eta 26erako, egun horietako bakoitzeko 0:00etik 23:59ra.

Deialdia egin duten sindikatuen esanetan, grebaren arrazoa honako hau da: «*probintzia-hitzarmen sektorialaren negoziazioa*».

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa eta osasuna. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako oinarrizko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarrizko eskubideetako bat bera ere.

Edonola ere, aurreko premisa ondorioztatu ondoren, nabaria da oinarrizko eskubideak murriztuko dituen neurri orok proportzionaltasun-printzipioa zorrotz bete behar duela, eta, hori lortzeko, hiru betekizun edo baldintza bete behar ditu neurriak: hori aplikatuz gero proposatutako helburua lortu ahal izatea, edo «egokitasun-judizioa»; kasua aztertu ondoren helburu hori eraginkortasun berdinarekin lortzeko neurri apalagorik ez dagoela ondorioztatu izana, edo «premia-judizioa»; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako

eragiten diren kalteak baino, hau da, «proportzionaltasun judizioa, zentzu hertsian». Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa eta ezinbestekoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhurtasunez jokatzeari. Hori guztia dela-eta, ziurtatze horrek berme gisa jardun behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta, betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela —amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan—, baldin eta haien interesak grebaren bidez babesteak komunitateari edo funtsezko zerbitzuaren hartzaileari zein zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien erreibindikazioek edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, aurrekoa kontuan hartuta eta greba-deialdi honen aurrean, grebaren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan.

Jarduera-eremuari erreparatuz gero, Arabako egoitza pribatu eta etxebizitza komunitario guztietan deitu dute greba lau sindikatuk, ELA, LAB, CCOO eta UGTk; hots, sektorean gehiago ordezkaritza dutenek. Eskuragarri dauden azken datuen arabera, 2021eko urtarrilekoak, 72 zentro dira eta 1687 pertsona bizi dira bertan. Denbora-eremuari dagokionez, deialdiak 3 egun osotan edukiko du eragina, nahiz eta egun horiek, maiatzak 12, 19 eta 26, ez diren ondoz ondokoak. Greba egun horietako bakoitzeko 0:00etik 23:59ra deituta dago.

Horrenbestez, behar bezala babestu behar dira bizitzarako, osotasun fisiko eta moralerako eta osasun-babeserako eskubideak —Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan jasotakoak—, zeinak agintari publikoek bermatu behar baitituzte ziurtatuta beharrezkoak diren zerbitzuak ematen direla eta prebentzio-neurriak ezarrita, eta, aldi berean, greba egiteko eskubidea zilegi dela kontuan hartuta. 10.1. artikulua xedatzen duenez, gizabanakoaren duintasuna ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri da. Halaber, Konstituzioaren 49. artikulua xedatzen duenez, «Botere publikoek aurreneurri-, tratamendu-, bizkortze- eta gizarteratze-politika egingo dute elbarri fisikoentzat, zentzumen-elbarrientzat eta elbarri psikikoentzat; horiei, eurek behar duten arreta berezia emango zaie, eta bereziki babestuko dira, titulu honek herritar guztiei ematen dizkien eskubideak egikaritu ahal izateko».

Ezin da ahaztu deitutako greba COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren eta osasun- eta gobernu-agintariak hartutako neurri eta gomendioen barruan kokatzen dela. Horrela, kontuan hartu behar da Lehendakariaren maiatzaren 7ko 23/2021 dekretuan ezarritakoa, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriei buruzkoa eta Osasuneko sailburuaren 2020ko uztailaren 28ko Aginduan ezarritakoa, COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Osasuneko sailburuaren 2020ko ekainaren 18ko Aginduaren eranskina aldatzen duena, normaltasun berrirako trantsiziorako planaren 3. fasea gainditu eta gero.

Agindu horren eranskinaren 4.3 puntuan, "Gizarte-zerbitzuetako zentro, zerbitzu eta establezimenduei" buruzkoan, berariazko betebeharrak ezartzen dira, egoitza-izaerako gizarte-zerbitzuek eta eguneko zentroek bete beharrekoak, eta antolamendu-neurriak, prebentziokoak eta higienekoak hartu behar dituzte langileei, erabiltzaileei eta bisitariari dagokionez, kutsadura-arriskuak prebenitzeko egokiak baitira. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22. artikuluan jasotako gainerako zerbitzuen prestazioari dagokionez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoari dagokionez, ezartzen du kutsadura-arriskuak prebenitzeko higiene-neurri egokiak hartzen direla bermatuz egin behar dela.

Kontuan hartuta zentro horietako erabiltzaileek kalteberatasun berezia dutela SARS-CoV-2k eragindako infekzio larrien aurrean eta heriotza-tasa altua pairatzen ari direla, eta aintzat hartuta transmisioa areagotu egiten dela inguru itxiotan pertsonen hurbiltasunaren eta harreman estuaren bidez, COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren eraginak bereziki latzak dira kolektibo honetan.

Horregatik, Osasun Sailak etengabe berrikusten dituen hainbat dokumentu egin ditu SARS-CoV-2 koronabirusaren aurrean egoitza eta zentro soziosanitarioetan aplikatu beharreko neurriak eta gomendioak zehazteko. Honako hauek dira, hain zuzen ere:

- Zentro soziosanitarioetan COVID-19tik babesteko protokoloa, 2021eko martxoaren 25ekoa.
- JT-01 Geriatrikoak eta bestelako zentro soziosanitarioak garbitu eta desinfektatzeko neurriak, 2020ko apirilaren 1ekoa.

Adinekoentzako egoitza-zentroen eta adinekoentzako eguneko zentroen kasuan, kontingentzia-planak eta horietako bakoitzean egindako prebentzio-planak aplikatzeko, osasun-agintariak emandako protokoloak eta araudiei jarraiki, ezinbestekotzat jotzen dira zenbait neurri, besteak beste, arkitektura-sektORIZAZIOAK eta egoitza-zentroetako eta eguneko zentroetako langileen sektORIZAZIOAK, erabiltzaileak tratamendu-kohorteetan sailkatzea eta langile-politika bat, norbera babesteko ekipamenduak modu estentsiboan erabiltzea dakarrena, bere inplikazio guztiekin, eta langileak beren harremanak kohortera soilik mugatzea dakarrena.

Bestalde, neurri horiek indarrean mantentzeko beharrari dagokionez, nahiz eta abenduan txertaketa-kanpaina hasi zen zentro horietan, eta, gaur egun, arreta ematen dieten ia erabiltzaile eta langile guztiek txertoa jarrita duten, 2021eko martxoaren 25eko Zentro soziosanitarioetan COVID-19tik babesteko protokoloaren indarreko bertsioan, berariaz honako hau adierazten da:

*“COVID-19 txertaketa-kanpainak lehenetasuna eman die adinekoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroei eta eguneko-zentroei. Horri esker, epe laburrean gaixotasunaren intzidentzia nabarmen murriztu da, eta, horrekin batera, kasu larriak eta heriotzak, isolamenduak eta berrogeialdiak.*

*Hala ere, txertoaren eraginkortasunari buruz une honetan dagoen informazioa, itxaropentsua bada ere, mugatua da oraindik, eta zenbait galdera sortu dira birusaren balizko aldaeren aurrean eman dezakeen erantzunari buruz. Gainera, biztanleria orokorraren immunizazio-maila oraindik txikia da, eta horrek arriskua dakar egoiliarren kanpoko kontaktuentzat. Ondorioz, OMEk eta nazioarteko beste erakunde batzuek gomendatzen duten bezala, egoiliarrek zein langileek orain arte indarrean zeuden prebentzio- eta kontrol-gomendio guztiak jarraitzen jarraitu behar dute, beren burua eta gainerakoak SARS-cov-2 infekziotik babesteko, beraien txertaketa-egoera edozein dela ere.*

Ildo beretik jo du Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak, 2021eko maiatzaren 5ean, hizpide dugun greba-deialdia dela-eta emandako txostenean. Aipatutako txosten horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko egungo osasun-egoera aztertu ondoren adierazten du 14 egunera pilotutako intzidentzitatea 100.000 biztanleko 60 kasu berri baino sei eta zazpi aldiz handiagoa dela – European Centre for Disease and Prevention and Control (ECDC) erakundeak Europar Batasuneko herrialdeak goi-arrisku batean sailkatzeko ezarritako muga –, eta, berriz ere, martxoaren 25eko Zentro soziosanitarioetan COVID-19tik babesteko protokoloa aipatzen du.

Aurreko guztia kontuan izanik «Arabako egoitza pribatuen eta etxebizitza komunitarioen» sektoreko greba-deialdiari dagokionez, gobernu-agintaritzak neurri egokiak hartu beharko ditu bermatzeko funtsezko zerbitzuari eutsiko zaiola egoitza arretan, bat etorrita honako arau hauetan ezarritakoarekin: Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikulua eta horrekin bat datozenak; eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua (uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren bidez aldatua), eta Laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretua, betiere Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Horren haritik, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Legegintzako Errege-Dekretuaren 10. artikuluko bigarren paragrafoak «gobenuaren agintaritzari» esleitzen dio greba-kasuetan horrelako zerbitzuak ematea ziurtatzeko beharrezko neurriak hartzeko –hala badagokio– eskumena; Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak horren inguruan egindako interpretazioaren arabera (besteak beste: 11/1981 epaia, apirilaren 8koa; 26/1981 epaia, uztailaren 17koa, eta 51/1986 epaia, apirilaren 24koa), erreferentzia hori Gobernuari edo gobernu-ahalmenak egikaritzen dituzten organoei dagokie.

Baina eskumen hori gauzatzeak ezin du, inondik inora, de facto ezabatu greba egiteko eskubidea, ezta eskubide horren edukia hutsaldu ere, eskubidea gauzatu bitartean bermatu beharreko gutxieneko zerbitzuek normaltasun-itxura emanda; horrela, izaera mugatzailea kontuan hartuta ezarri beharrekoa da. Horregatik, dagoeneko ezarrita dagoen jurisprudentziari jarraikiz, beharrezkoa da, izaera mugatzaile horren barruan, proportzionaltasun egokia ere bermatzea, babestu beharreko gainerako eskubideei begira; hala, ongi arrazoitu eta justifikatu behar dira murrizketa horiek.

Adinekoen egoitza-zerbitzuetako eta eguneko zentroetako zerbitzu publikoak «ezinbestekoak» dira, aldez aurretik aipatu ditugun arauetara jarraikiz. Izan ere, prestazio horien onuradunak adinekoak edota mendekotasuna duten pertsonak dira, zeinak osasun-gabezia larriak izaten baitituzte, eta, horrenbestez, sistemaren laguntza integrala behar dute, arreta emateko bai haien autonomiari baita legeak onartu dien mendekotasun-mailari; horri erantsi behar zaio laguntza pertsonal handia ere behar dutela, bizitzaren eguneroko zereginak egiteko. Konstituzioak bereziki babesten ditu pertsona horiek guztiak, Konstituzioaren 50. artikuluan jasota geratu denez, eta Konstituzioaren 15. eta 43.2. artikuluetan jasota dauden bizirako, osotasun fisikorako eta moralerako eta osasunerako eskubideak ere horrekin lotuta daude egoera honetan, baita gizabanakoen duintasuna ere, zeina ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri gisa jasotzen baita 10.1. artikuluan.

Zerbitzu horien guztien oinarritzotasuna bermatu eta, aldi berean, langileen greba-eskubidearen funtsezko edukiarekin uztartzeko, honako egoera hauek hartu behar dira kontuan:

**1)** Egoitza-arretako zerbitzua, abenduaren 14ko 39/2006 legearen, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa, 25. artikuluko terminologiaren arabera, adinekoentzako egoitza harrerako eta laguntza integraleko zentroa da, etengabeko osasun-zerbitzu pertsonalak eskaintzen dituena, iraunkor bihur daitezkeenak baldin eta egoitza hori adinekoaren ohiko egoitza bada. Kategoria horren barnean, honako egoitza mota hauek bereiz daitezke, martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren, Adintsuentzako funtsezko gizarte-zerbitzuei buruzkoa, 2. artikuluan ezarritakoaren arabera:

*Tutoretzapeko apartamentuak:* Pertsona bakarreko eta/edo bikoteko etxebizitza autonomoen multzoak dira; taldeko zerbitzuak dituzte, aukeran erabiltzekoak; duten egoera psikofisiko eta soziala dela eta, baliabide gehiagorik behar ez duten pertsona nagusientzat dira.

*Etxebizitza komunitarioa:* Bizikidetzaren unitatea, gehienez 14 plazakoa, nolabaiteko autonomia-maila duten adinekoentzat sortua, eta familiakoaren antzeko giroa eskaintzen duena.

*Egoitza:* 14 plazatik gorako edukiera duen bizikidetzaren zentroa, etxebizitza iraunkor eta partekatua izateko sortua, eta mendekoei etengabeko arreta integrala eskaintzen diena. Gradu handiko ezintasunak dituztenei laguntzeko behar adinako baliabide materialez hornituko da ezinbestean.

**2)** Eguneko zentroko zerbitzuak mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta integrala eskaintzen die egunez, autonomia pertsonala hobetzeko edo autonomia pertsonalaren ahalik eta maila hoberenari eusteko, eta familiei edo zaintzaileei laguntzeko. Ikuspegi biopsikosoziala oinarri hartuta, esan daiteke aholkularitza, prebentzioa, errehabilitazioa, autonomia sustatzeko orientazioa, gaikuntza edo asistentzia-arreta eta laguntza pertsonala ematen dituela bereziki. Zentro hauen tipologia, horiek arautzen dituen araudiaren arabera, honako hau da: 65 urtez beherakoentzako eguneko zentroak, 65 urtez gorakoentzako eguneko zentroak eta arreta espezializatuko eguneko zentroak, zaintza espezifikokoak eskaintzen dituztenak.

**3)** Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikuluan, hiru mendekotasun-gradu ezartzen dira, eta gradu horren arabera zehazten da mendekotasuna duten pertsonen arreta. Hori horrela izanik, «mendekotasun handia» (III. gradua) duten pertsonen eguneroko askotan behar dute laguntza eguneroko oinarrizko jardueren batzuk egiteko, eta beste pertsona baten edo batzuen etengabeko laguntza behar dute, guztiz galduta dutelako beren autonomia fisiko, mental, intelektual edo sensoriala. «Mendekotasun larria» dutenek (II. gradua), berriz, laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarrizko jardueren batzuk egiteko, egunean bizipahiru aldiz, baina ez dute behar kanpoko zaintzaile batek etengabe laguntzea; nolana ere, laguntza premia zabalak dituzte autonomia pertsonalaren arloan. Azkenik, «mendekotasun arina» dutenek (I. gradua) laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarrizko jardueren batzuk egiteko, gutxienez egunean behin, edo laguntza behar izaten dute, tarteka edo hein batean, beren autonomia pertsonalean.

**4)** Egoiliarren ezintasun-mailaren eta horren ondoriozko mendekotasunaren arabera, laguntza eta arreta integralerako hainbat maila daude zehaztuta pertsona horien eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretan.

5) Sektore horretan pertsoneri ematen zaizkien zerbitzu guztiek ez dute eragin bera haien baldintza biopsikosozaletan. «Zuzeneko arreta-zerbitzuak» izenekoak dira (osasun-arreta, arreta geriatrikoa eta abar), zalantzarik gabe, greba-egoeretan mantendu beharreko funtsezko zerbitzuak, mendekotasuna duten pertsonekin zuzenean lotuta daudelako. «Arreta zuzeneko zerbitzuen» barnean ditugu, halaber, otorduen prestaketa eta otordu-zerbitzua, hidratazioak, botika-hornidurak, siesta terapeutikoak eta, deialdi zehatz honetan, higiene pertsonala, eta zeregin horiek guztiek osatzen dute zerbitzuko erabiltzaileen —bereziki, mendetasun handia dutenen— osasun narriatua zaintzeko beharrezkoa den laguntza-tratamendu integralaren zati bat. Era berean, «zuzeneko arreta zerbitzuaren» barruan sartzen da altxatzeko, garbitzeko, janzteko edo jateko laguntza ematea.

Egungo testuinguruan, osasun-agintariak egoitza-zentroetan eta eguneko zentroetan egin beharreko gomendioen artean sartu dituzte hainbat betebeharrak, lehendik egiten ziren funtsezko zerbitzuen artean sartu behar direnak. Zehazki, antolaketa-eredu berrietatik datozenei buruz ari gara, tartean nabarmentzekoak sektorizazioa eta langileen taldeen araberako banaketa. Gainera, erabiltzaileen arteko segurtasun distantzien kontrolarekin eta taldeko edo/eta banakako jarduerak egiteko moduarekin lotutako zeregin berriak sartu dira, bai eta egoitzen egoera klinikoaren gaineko kontrola ere (tenperatura kontrolatzea, sintomak behatzea, higiena areagotzea eta abar).

Aurretik aipatu bezala, txertaketa-kanpainak aurrera egin duen arren, pandemiaren egoerak eta indarrean jarraitzen duten osasun-gomendioek, ezinezko egingo lukete hori betetzea gaur egun zuzeneko arretan %100etik beherako portzentajearekin eta zerbitzu horien erabiltzaileak kutsatzeko arriskuan jarriko lirateke, azken hilabeteotan bizi ditugun ondorioekin.

Hala gomendatu zuen, berariaz, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak, 2020ko urriaren 7an eta azaroaren 11n eta 25ean sektore berarentzat deitutako greba zela eta emandako txostenean, honako hau ondorioztatzen baitu: *Zerbitzu hauetako langileen kopurua murriztuz gero, ezin dira bete kutsatze arriskua kontrolatzeko, prebenitzeko eta kalitatea bermatzeko neurriak, gorago azaldu direnak eta kontingentzia-planetan jasotzen direnak, zailtasun konpon ezinak sortzen baitira zentroa sektorizatzeko eta langileak multzo espezifikotara esleitzeko orduan*”.

Ildo beretik jo zuen Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak, greba horren esparru funtzional antzekoa zuen Gipuzkoako hirugarren adineko zentro pribatuen sektorean otsailaren 25erako eta martxoaren 30erako deitutako grebaren harira martxoaren 15ean emandako txostenean.

Azkenik, posizio bera mantentzen du Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak, aztergai dugun greba-deialdiaren harira 2021eko maiatzaren 5ean egindako txostenean, zentro soziosanitarioetan COVID-19tik babesteko protokoloaren azken bertsioan adierazitakora jotzen duenean eta Arabako etxebizitza pribatuen eta egoitza komunitarioen sektorean 2021eko apirilaren 7, 14 eta 21erako deitutako grebarako 2021eko martxoaren 31ko Aginduan ezarritako gutxieneko zerbitzuak proposatzen dituenean.

**6)** Baina, zuzeneko arretako zerbitzuez gain, neurri txikiagoan bada ere, ematen zaizkien beste zerbitzu batzuk ere badaude, zeharka aurrekoen mende daudenak (sukaldea, garbiketa, garbitegia ...) edo egoitza-instalazioen eta -zerbitzuen koordinazioan, mantentze-lanetan eta segurtasunean laguntzen dutenak.

Aurreko aginduetan, zerbitzu horien intentsitatea eta horiek egiteko langile-kopurua baxuagoak izan dira arreta zuzenekoak baino. Hala ere, lehen ere adierazi dugun bezala, SARS-CoV-2 koronabirusak eragindako egungo egoeran, osasun-agintaritzek hainbat neurri eta gomendio onartu eta argitaratu dituzte, zeharkako zerbitzuekin ere lotuta, besteak beste garbiketarekin eta arropa-garbitegiarekin. Nahiz eta aurreko deialdietan zerbitzuon intentsitatea eta langile kopurua baxuagoak izan diren, egungo egoera kontuan hartuta eta osasun-arloko neurriak eta gomendioak ikusirik, zeharkako zerbitzu horiek nabarmen areagotu behar dira.

Hori dela eta, garbiketa-zerbitzua indartu behar da, osasun-agintarien neurrietan zehaztutako intentsitatea eta maiztasuna bete dadin; hau da, bereziki nabarmentzekoa da garbiketa-zerbitzua, eta zehazki, zentro guztiaren desinfekzioa. Hala, maiztasuna areagotu egingo da: txanda bakoitzean gutxienez garbiketa bat, erabilera komuneko eta joan-etorri handiko guneetan garbiketa sakona egiteko, bai eta kontaktu gehien duten gainazal eta eremuak, besteak beste barandetan, eskubandetan, botoietan, ateen heldulekuetan, etengailuetan, mahaietan, eskaileretan, igogailuetan, iturrietan, teklatuetan, telefonoetan, tabletetan, gorpil-aulkietan, makuluetan eta abar.

Harrera eta atezaintzako zerbitzua ere zeharkako zerbitzuen barruan dago, eta zerbitzu hori ere indartu behar da. Izan ere, zentroetara egiten diren bisiten gainean ere egin dituzte gomendioak osasun-agintariek: bisita horiek mugatu dira, eta bertaratzen diren pertsonen datuak jaso behar dira; gainera, tenperatura hartu behar zaie bisitariei. Horrenbestez, ate nagusiko sarbidea zaindu eta kontrolatzeaz gain, zerbitzu honek egin beharreko zereginen artean sartzen da bisitak erregistratzea eta tenperatura kontrolatzea.

**7)** Zentro horien ohiko funtzionamenduak intentsitate-maila desberdinak ditu egunean zehar burutu beharreko zereginetara dagokienez, pertsonen jarduera funtzionalaren eta ziklo biologikoaren arabera, eta jarduera handiagoa metatzen da goizeko lehenengo orduan (jaiki, higiene pertsonala, jantzi, medikazioa eta abar), eguerdiko otorduan eta eguneko azken orduetan (afaria, oheratu, pixoihala aldatu, medikazioa eta abar); beraz, ordu horietan arreta pertsonalizatu handiagoa behar da. Hortaz, eguneko gainerako



orduetarako ezarritako langile-kopurua baino handiagoa ezarri behar da aipatutako ordu horietarako, egoiliarren beharrei arreta emateko jarduera txikiagoa baita gainerako ordu horietan.

**8)** Grebaren eraginpeko zentroen konfigurazio berezia ere kontuan hartzekoa da. Hau da, greba-egoera batean zentro bakoitzari zer giza baliabide banatuko zaizkion ezartzeko orduan, egoiliarrei arreta behar bezala eta segurtasunez emango zaiela bermatu behar da, eta gutxieneko zerbitzuak baldintza posibleetan eta horiek eman behar dituzten pertsoneri arriskurik sortu gabe emango direla.

**9)** Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan osasun-sistema unibertsala dagoenez, eta grebaren iraupena kontuan izanik, zera pentsa daiteke: osasun-arreta behar duten larrialdiko eta atzeraezinezko egoeretan egoiliarrei arreta ematea bermatua dagoela larrialdiko osasun-sistemaren bidez. OLT/EUDen egoera bestelakoa da; izan ere, askotan (mendekotasuna edo mendekotasun handia dute pertsonen kasuan batez ere), kronikoa izaten da sendaketak egiteko eta botika-dosiak prestatzeko beharra, eta, beraz, jarduera horiek ez badira betetzen, arriskuan jar daiteke zainketa horiek behar dituzten osasuna. Ere horretan, halaber, salbuespenezko egoeraren ondorioz, gutxienez ezarri ohi diren zerbitzuak indartu egin behar dira, osasun-agintaritzen gomendioak betetzeko. Kasu honetan, erabiltzaileen egoera klinikoaren kontrol handiagoa egin beharra dago, eta osasun-zerbitzuen erabilera kontrolatua egiteko gomendio orokorrak aplikatu behar dira. Ondorioz, langile horiek egin ohi dituzten lanak areagotu egin behar dira, osasun-agintaritzek egiten dituzten gomendioak betetzeko.

**10)** Elikagaiak prestatzeko sukalde-zerbitzua izango da, baina horiek, medikuak zehatz-mehatz hala preskribatu ezean, ahalik eta modurik erraz eta sinpleenean prestatuko dira, eta erabili ondoren botatzen diren tresnak baliatuko dira, lan honetan ahalik eta denbora gutxien emateko protokolo edo metodologiaren arabera. Era berean, garbiketa-zerbitzuak behar bezalako higiena zaintzeko zerbitzuak dira, eta zeharkakoak izan arren, beharrezkoak dira. Bada, arlo honetan, egoiliarren osasuna arriskuan jartzea saihesten duten oinarriko zereginak bete beharko dira, intentsitate baxuagoa ezarri arren.

**11)** Arropa-garbitegiaren zerbitzuan, halakorik duten zentroetan, lentzeria guztia eta zerbitzuari dagozkion gainerako lanabesak garbitzeaz gain, egoiliarren arropa pertsonala ere garbituko da.

Zerbitzu hori, osasun-larrialdiko egoera dela-eta, indartu eta zabaldu egin behar da, 2020ko urriaren 6ko, 2020ko abenduaren 18ko eta 2021eko otsailaren 15eko aginduetan egin zen bezala. Izan ere, osasun-agintariek zehazten zuten bezala, koronabirusak eragindako egungo epidemiaren kontrolerako arreta berezia jarri behar da arroparen garbiketan, eta, beraz, garbitegi-zerbitzuak eman behar dituzten langileen kopurua % 90era arte areagotu behar da eta, hala, osasun-agintaritzek gomendatu duten bezala egin ahalko da zerbitzua.

**12)** Mantentze-zerbitzuek, funtsezkoak izan gabe, funtsezko laguntza ematen dute greba honetan gutxienez jotzen diren gainerako zerbitzu eta instalazioek behar bezala funtziona dezaten. Gutxienezko zerbitzu horien funtzionamenduan eragina izan dezaketen balizko ezustekoak babestu beharreko gizartearentzako funtsezko zerbitzuak bermatzeko artatu beharko dira.

**13)** Greba honen deialdiaren esparruan, zentroak askotarikoak eta heterogeneoak dira; pertsonen mendekotasun-mailetan ere berezitasunak askotarikoak dira, baita kudeaketa-ereduak ere, langileen plantillei eta koadranteei dagokienez batez ere. Hori dela-eta, oso zaila da honelako agindu batean horiek guztiak homogeneizatzea.

Alderdi horiek ere kontuan izan behar dira gutxienezko zerbitzuak zehazteko garaian, egoiliarren oinarrizko eskubideak babesteko ahalegina egin behar baita, betiere gaur egungo errealitate soziokulturalarekin bat datozen duintasun-baldintzak betez, baina ezinbesteko baldintzetara murriztuta, greba-eskubidea ere babestearren eta greba egitera deitutako langile ahalik eta gehienek oinarrizko eskubide hori baliatzeko aukera izan dezaten, bai eta greba egintzat har dadin.

**14)** Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren II. eranskineko 10. Zehaztapen Teknikoak (uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren bidez indargabetu denak baina, hala ere, oraindik ere aplikagarria denak, azken horren lehen xedapen iragankorraren arabera) ezartzen ditu gizarte baliabide hori behar bezala emateko behar diren gutxienezko langile-ratioak, langileen lan-karga eta erabiltzaileek merezi duten arreta kontuan hartuta. Ratio horiek saihestu daitezke greba-egoeretan, gutxienezko zerbitzuak finkatzeko garaian, baina egoiliarren oinarrizko eskubideak bermatu egin beharko dira, ezinbestean.

**15)** Zuzeneko arretaren eta zeharkako arretaren funtsezko irizpide berberak aplikatu behar zaizkie mendetasuna duten adinekoentzako eguneko zentrotan ere; izan ere, oro har, egoitzek baino langile gutxiago dituzte, eta horien erregulazioa urriaren 17ko 202/2000 Dekretuan dago. Dekretu horren baimen-irizpideak 7. artikuluan araututa daude, I. eranskinarekin lotuta (8. paragrafoa, zehazki, langileei buruzko da). Beraz, zuzeneko arretako zerbitzuak mantenduko dira zuzeneko arreta hori ematen duten gerokultoreen edo parekatuen % 100arekin. Era berean, zeharkako arreta-zerbitzuak (garbiketa eta sukaldea) bizitegi-eremuan aplikatu diren irizpide berberekin mantenduko dira.

Zentro horiei dagokienez, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren ekainaren 28ko 558/2011 Epaiak xedatzen duenez, «greban zehar haiek ixtea bateraezina da dekretuak zerbitzu zehatz horiei ematen dien oinarrizko izaerarekin. Gu ere bat gatoz oinarrizko izaera horrekin; izan ere, eguneko zentrotan eta desgaitasuna duten pertsonen arretarako zentrotan dagokienez, egunean zehar adinekoekin eta desgaitasuna duten pertsonekin duen harremanean oinarritzen da izaera. Pertsona horiek lanegunean egiten den greban zehar haien ardura duten helduen zaintzapean geratu beharko lukete, eta horrek heldu horien askatasuna eta autonomia

murriztuko luke beharrezkoak diren beste jarduera batzuk gauzatzeko, funtsean lan-jarduera, lanegun bat baldin bada».

Zentro horietan funtsezko zerbitzutzat hartu behar da, halaber, mendekotasun egoeran dauden pertsonen garraioa, baldin eta egin behar dituzten joan-etorriak (aurreko paragrafoan aipatutako funtsezko zerbitzuak jaso ahal izateko) ezin badira egin haien mugikortasun-ahalmenera egokitutako bestelako garraiobideen bitartez. Zerbitzu hori emango ez balitz, pertsona horiei kendu egingo litzaizkieke laguntza, terapia eta osasunerako arreta eta zerbitzuak, hau da, beren «eguneroko bizitzako oinarrizko funtzioak» deritzenak prebenitu, mantendu eta hobetzeko xedea dutenak (funtzio horiek bermatzen ditu, hain zuzen ere, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, 24. artikuluan). Horren harira, gobernuko agintaritza honek portzentaje jakin bat zehaztu gabe ezarri izan ditu gutxieneko zerbitzuak, nahikotzat jo izan baita zerbitzua azaldu den bezala emateko xedea ezartzea.

Hala eta guztiz ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak bere irizpena eman du gai horri buruz, 2013ko maiatzaren 30eko greba orokorraren deialdiaren kariaz ezarritako gutxieneko zerbitzuei buruzko Aginduaz 2013ko irailaren 25ean emandako epaiaren bitartez. Epai horretan, garraio-mota horri dagokion oinarrizko zerbitzuaren izaera aitortzen dio Auzitegiak, eguneko zentroek ematen duten oinarrizko zerbitzura iristea bermatzen duelako. Hala ere, Salaren ustez, xedapenak motibazioa falta du, «zerbitzuok emateko deia jaso duten langileen greba-eskubidearen mugaren proportzionaltasunari erreparatzen bazaio».

Aipatu behar da gobernu honek ez duela ehuneko zehatzik ezarri sektorean errealtate desberdin asko daudelako eta haiek guztiak ezagutzea zaila delako; hori dela eta, aipatutako testua nahikotzat jo zuen.

Greba-eskubidea baliatzeko aukera mugatzeak sortzen duen arazoa da kasu honetan aztergaia, zerbitzu hori emateko soilik kontratatu diren eguneko zentroetako langileen kasuan. Izan ere, erabiltzaileen ezintasunen ondorioz, zerbitzu hori emateko guztiz beharrezkoa da gidari bat eta begirale edo laguntzaile bat egotea, eta ezin da ezarri % 100etik beherako portzentajerik. Bestalde, kasu hauetan ezin da ezarri eman beharreko garraioaren portzentaje-murrizketarik, zerbitzua ematen bada ere intentsitatea baxuagoa izan dadin. Izan ere, horrek langile horien lanaldia luzatzea eragingo luke, ohiko lanaldia baino luzeagoa ezarrita. Ondorioz, egoera honetan garraio bereziaren funtsezko zerbitzua bermatzeko eman behar den zerbitzuak guztiz mugatu diezaieke greba egiteko eskubidea langile horietako batzuei, zerbitzu hori egin dezaketen bakarrak direlako, baldin eta ez badago bestelako garraiobiderik, erabiltzaileen mugikortasun-gaitasunetara aski egokituta dagoenik.

**16)** Greba-deialdi honen eraginpeko zentroetako langileak era askotakoak dira, enpresa eta erakunde desberdinei atxikita baitaude. Hori horrela, egoitza eta eguneko zentro batzuetan, gerta daiteke langile batzuk grebara deituta egotea eta beste batzuk ez. Hori gertatzen bada, normalean lan horiek egiten dituzten bi kolektibo horien guztirakoaren gainean zehazten dira greban estali beharreko langile-ratioak eta gutxieneko zerbitzuak.

Orain arte esandakoarekin bat eta guztia laburbiltze aldera, 2021eko apirilaren 7, 14 eta 21erako deitutako greba gauzatzeko eskubidea baliatzea zilegi bada ere, pertsona kopuru jakin batek lanean jardun behar du «arreta zuzeneko zerbitzuak» emateko eta oinarrizko zerbitzu horiek emateko ezinbesteko diren beste jarduera batzuk gauzatzeko. Hori guztia ikusita, agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezartzen ditu Gobernuak, auzitan dauden eskubideen ezinbesteko edukia bateragarri egiten saiatzeko.

Puntu honetan kontuan hartu behar da Gipuzkoako hirugarren adinekoen egoitzen sektorean lehendik ere deialdi honen antzeko beste batzuk ere egon direla, zeintzuen arabera ezarri baitira 2018ko irailaren 26ko, urriaren 19ko, azaroaren 22ko eta abenduaren 20ko aginduak; 2019ko otsailaren 18ko, martxoaren 28ko, apirilaren 26ko, maiatzaren 20ko, ekainaren 13ko, irailaren 16ko, azaroaren 8ko eta abenduaren 11ko aginduak; eta 2020ko urtarrilaren 10eko, otsailaren 6ko, martxoaren 6ko, urriaren 2ko eta abenduaren 4ko aginduak. Horietako bigarrenaren aurka (2018ko urriaren 19koa), ELA sindikatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen, pertsonen oinarrizko eskubideen jurisdikzio-babeseko prozedura bereziko izapideen zioz bideratua (873/2018 jurisdikziobabesa). Prozedura hartan, kautela-neurriak eskatu ziren (108/2018 kautela-neurriak), eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren Bigarren Atalak 2018ko azaroaren 6an emandako autoaren bidez ezetsi ziren. 2019ko azaroaren 22ko epaiaren bidez, ezetsi egin zen errekurtsua.

Inguruabar horiek guztiak eta jurisdikzio-babeseko baliabideetan ezarritako epaiak (besteak beste 1288/2017 eta 873/2018) berariaz baloratu ziren, aurreko deialdietako gutxieneko zerbitzuak ezartzeko orduan. Aipatutako bigarren epaiak, aurrekoarekin lotuta, honako hau adierazten du: «Kontuan hartuta sektorearen berezitasuna nahiz zerbitzuen eta egoitzen hartzaileen berezitasuna, justifikatuta dago gutxieneko zerbitzuak finkatzeko orduan prebentzio-irizpideen arabera jardutea, Bizkaiko sektorearen greban Salaren hainbat aurrekaritan baloratu zirenak bezalako egoerak sor ez daitezten. Egoera horiei buruzko epai guztien lekuko, Jurisdikzio Babeseko 1288/2017 Errekurtsoan ezarritakoa aipatzen dugu».

Gainera, gogoan hartu behar da ezen, grebaren ondorioz ukitutako eskubideak zaintzen ahalegintzeko asmoz, gutxieneko zerbitzuak egitera deitutako langileen ehunekoak aplikatzeko modua aldatu zela 2019ko maiatzaren 20ko Aginduaren bidez — zeinak Gipuzkoako hirugarren adinekoen egoitzetan urte hartako maiatzaren 21etik 25era bitartean deitutako grebaren aurrean ezarri beharreko gutxieneko zerbitzuak arautzen

baitzituen—. Agindu horretan, eutsi egin zitzairen ezarritako gutxieneko zerbitzuen ehunekoei, eta horiek zenbatzeko modua aldatu egin zen; hala, ondorengo aginduetan, 2020ko urriaren 6ko aginduan barne, berretsi zen, eta agindu honek kalkulu-metodo hori erabili zuen.

Bestalde, Arabako egoitzen eta etxebizitza komunitarioen sektore berean, 2020ko urriaren 6ko aginduz gain, 2020ko abenduaren 18ko agindua eman da, eta, berrikiago, 2021eko otsailaren 15ekoa eta 2021eko martxoaren 31koa. 2020ko urriaren 6ko Aginduaren aurka, zeina 2020ko urriaren 7rako eta azaroaren 11 eta 25erako greba-deialdiari buruzkoa baita, ELA sindikatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen, pertsonaren oinarrizko eskubideen babes juridikzionalerako prozedura bereziaren (1013/2020 errekurtsioa) izapideen bidez bideratua. Errekurtso hori ezetsi egin zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salak 2021eko otsailaren 24an emandako 82/2021 epaiak eta errekurritutako agindua berretsi zuen.

Aipatutako guztiagatik, greba honetan 2020ko urriaren 6ko eta abenduaren 18ko eta 2021eko otsailaren 15eko eta 2021eko martxoaren 31ko Aginduetan ezarritako gutxieneko zerbitzuei eustea erabaki da. Agindu horietan lehendik ezartzen ziren zerbitzuak gehitu egin ziren, behar-beharrezko alderdietan, oraingo kontingentzia epidemikora egokitze eta erabiltzaileen eta langileen artean arriskua minimizatzen dela bermatzeko.

Zerbitzu jakin batzuk ezinbestekoak dira, funtsezko eskubide batzuk betetzen dituztelako, eta zerbitzu horiek bermatu ahal izateko, greba-eskubideari muga batzuk jarri behar zaizkio. Arlo horretan eskumen eskusiboa gobernu-agintaritzak edukitzeak zera bermatzen du, muga horiek zuzenbidearen arabera ezarriko direla, eta, ezarri ere, gobernatzeko erantzukizuna eta ahalmena duenak baino ez dituela ezarriko.

Hori dela eta, Lan Harremani buruzko Errege Lege-Dekretuaren (martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege-Dekretuaren) 10.2. artikulua aipatzen duen prozedura hasi da, eta entzunaldia eman zaie ukitutako aldeei, enpresa-elkarteei eta sindikatuen ordezkariari, nahiz Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun sailari, alegazioak egin ditzaten gizartearentzako funtsezkoak diren zerbitzu hauek bermatzeko beharizanari buruz, bai eta, hala badagokio, estali beharreko gutxieneko zerbitzuak proposa ditzaten ere.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 3. artikulua titularrari esleitzen dizkio irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) lan-legeria betearaztearen arloan bereganatutako eskumenak. Zehazki, 2.j) apartatua: zerbitzu publikoak edo premia aitortua eta atzeraezina duten zerbitzuak ematen dituzten enpresa, erakunde eta instituzioei eragiten dieten greba-eskubidea egikaritzen den

kasuetan, erkidegoaren funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela bermatzeko behar diren bermeak ezartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, bigarren Lehendakariordeak eta Lan eta Enpleguko Sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritza hartuta, honako hau

## **EBAZTEN DU:**

**Lehena. - 1.** «Arabako egoitza pribatuen eta etxebizitza komunitarioen» sektorean 2021eko maitzaren 12, 19 eta 26rako, 0:00etik 23:59ra bitartean, deitutako greban langileek haien greba-eskubidea erabil dezakete, arreta zuzeneko zerbitzuak bermatzen diren heinean, zerbitzu horiek gutxieneko zerbitzutzat jo behar baitira, egoiliarren bizitza eta osasuna bermatzen dituztelako haien beharren arabera. Beraz, behar diren zerbitzuak emango dira egoiliarrak ohetik jaikiarazi eta oheratzeko (jarrera aldaketak eta abar barnean hartuta), osasun-asistentziarako (botikak, sendaketak...), baita oinarrizko higiene pertsonalerako, elikadurarako eta botikak banatzeko. Era berean, berariaz bermatuko da honako hauetan ezarritako gomendioak beteko direla: zentro soziosanitarioetan COVID 19tik babesteko 2021eko martxoaren 25eko protokoloa, eta egoitza geriatrikoak eta beste zentro soziosanitario batzuk garbitu eta desinfektatzeko Jarraibide Teknikoa -01 (JT-01), bai eta egoitza-zentro bakoitzak aurreko horiek betetzeko garatu dituen kontingentzia-planak ere. Era berean, arreta zuzeneko oinarrizko zerbitzuak ezarri dira gutxieneko modura.

**2.** Ondoren aipatzen diren langileek jarraian zehazten den moduan egin beharko dituzte jarduera horiek:

### **2.1. Oro har.**

#### **2.1.1.** Portzentajea kalkulatzeko:

**a)** Ehuneko 1 baino baxuagoa bada, pertsona bati dei egingo zaio, gutxieneko zerbitzuak eman ditzan.

**b)** Gainerako kasuetan, emaitza zenbaki zatikiarra bada, gutxieneko zerbitzuak eman beharreko denbora kalkulatzeko, zerbitzu bakoitzeko langileen ohiko lanaldia zenbatekoa den hartuko da kontuan.

**2.1.2.** Artikulu honetan gutxienekotzat hartutako zerbitzuren bat ez duten zentro edo arloetan, aipatzen den langile-kopuru hori ez zaie gehituko beste zerbitzu edo arretei.

**2.1.3.** Gerta daiteke gutxieneko zerbitzuak betetzeko garaian greba egitera deitutako langileak eta greba egitera deitu gabekoak elkartzea; kasu horretan, agindu honetan finkatutako ehunekoak kalkulatzeko, ohiko moduan lan horiek betetzen dituzten bi kolektibo horietako langileen guztirakoa hartuko da kontuan.

Era berean, honako ordena honi jarraituz erabakiko da nork bete behar dituen «bat datozen» gutxienerako zerbitzuak: lehenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta grebara deituta ez dauden langileei dei egingo zaie; bigarrenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta, deituta egon arren, greban parte hartu nahi ez duten langileei; eta, azkenik, langile horiekin ez bada gutxienerako zerbitzua betetzen, greban parte hartu nahi dutenei deituko zaie.

**2.1.4.** Medikuek bestelako agindu berezi eta zehatzik ematen ez duen heinean, elikagaiak prestatu eta egoiliarrei emateko prozesua ahalik eta modu simple eta errazenean egingo da, erabili eta botatzeko elementuak baliatuta eta lanak egiteko ahalik eta denbora gutxienera eskatzen duten protokolo edo metodologiaren arabera, grebaren eragina suma dadin eta greba egin nahi dutenetatik ahalik eta langile gehienek baliatu ahal izan dezaten eskubide hori. Ezin izango da, inola ere, egoiliarren osasuna eta osotasuna arriskuan jarri.

**2.1.5.** Lehenetsuna izango dute mendekotasuna duten pertsonen higie pertsonala zaintzeko eta pertsona horiei botika edo elikagai terapeutikoak emateko lanek — betiere, medikuek aginduta edo osasun-protokoloan jasota badaude—, arreta hori gabe arriskuan leudekeen heinean. Halaber, oinarritzko higie pertsonalaren bidez egoiliarren osasuna eta osotasuna bermatuta egongo da, beti, grebaldian, erantsitako agirian jasotako gomendioak betez.

**2.1.6.** Pertsonen osasunerako edo segurtasunerako berehalako arrisku larria izan dezaketen arloetan egingo dira garbiketa-lanak. Horretarako, deialdi honetan erreferentziazko irizpideak izango dira behin eta berriz aipatu ditugun osasun gomendioak, bai eta Laneko eta Osasuneko Arriskuen Prebentzioko xedapen eta protokolo dokumentatuak ere. Hala, zentro osoa sakon garbitzen dela bermatu beharko da, desinfekzioa barne, eta garbiketa-lana areagotu egingo da erabilera komuneko eta joan-etorri handiko guneetan, nahiz kontaktu handiko gainazaluetan; besteak beste, barandetan, eskubandetan, botoietan, ateen heldulekuetan, etengailuetan, mahaietan, eskaileretan, igogailuetan, iturrietan, teklaluetan, telefonoetan, tabletetan, gurpil-aulkietan, makuluetan eta abar. Txanda bakoitzean gutxienez behin egin beharko da garbiketa.

**2.1.7.** Arropa-garbitegiaren zerbitzuan lan hauek egingo dira: egoiliarren azpiko arropa garbitu eta lehortzea, eta arropa zapala garbitu eta lehortzea (maindireak, burkoak eta eskuoihalak).

## **2.2. Egoitzak:**

Egoitzetan, gerokultoreen edo horien pareko langileen % 100ek lan egin behar du txanda guztietan, arreta zuzena ematen duten heinean.

Txanda guztietan, egin beharreko zereginak normalean arreta zuzenean egin ohi diren horiek izango dira, bai eta osasun-agintaritzek prebentzio-gomendioak betetzeko ezartzen dituztenak ere, 1.1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera.

### **2.3. Eguneko zentroak:**

Eguneko zentroetan, greba-egunean zuzeneko arretako zerbitzuei eusteko, arreta zuzen hori ematen duten gerokultoreen edo horien pareko langileen % 100ek lan egingo du.

Txanda guztietan, egin beharreko zereginak normalean arreta zuzenean egin ohi diren horiek izango dira, bai eta osasun-agintaritzek prebentzio-gomendioak betetzeko ezartzen dituztenak ere, 1.1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera.

Era berean, eguneko zentroetara joaten diren mendekoen garraio berezia bermatuko da, zentro horietara joateko desplazamenduak ezin badira bestelako garraiobideen bitartez egin, eta/edo horiek ez badaude haien mugikortasun-ahalmenera egokituta.

### **2.4. Etxebizitza komunitarioak:**

Etxebizitza komunitarioetan gerokultoreen edo parekoen % 60 egongo da, gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko orduan izan ezik, otorduetan ehuneko hori % 10 igoko baita. Gaueko txandan, gerokultoreen edo horien parekoen % 100ek lan egingo du.

Txanda guztietan, egin beharreko zereginak normalean arreta zuzenean egin ohi diren horiek izango dira, bai eta osasun-agintaritzek prebentzio-gomendioak betetzeko ezartzen dituztenak ere, 1.1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera.

### **2.5. Osasun-langileak:**

OLT/EUD langileen % 100 egongo da, egin ohi dituzten zereginen % 100 egiteko eta osasun-agintaritzek egin dituzten prebentzio-gomendioak betetzeko, 1.1. apartatuan ezarritakoari jarraikiz.

### **2.6. Sukaldeko langileak:**

Langileen % 50ek lan egingo du. Greban, sukaldeko langileek elikagaiak prestatu beharko dituzte, baina ez dute egin beharko bestelako lanik.

### **2.7. Garbitzaileak:**

Langileen % 100ek lan egingo du. Garatu beharreko lanak agindu honen 2.1.6. apartatuan aipatutakoak izango dira.



## **2.8. Arropa-garbitegiko langileak:**

Normalean lan horretarako betetzen den lanaldiaren % 90ean emango da zerbitzua, agindu honen 2.1.7. apartatuan azaldutako zereginak egiteko.

## **2.9. Mantentze-lanetako langileak:**

Jaiegunetan egoten den langile kopuru berdina egongo da, eta jendearen osasunerako edo bizitzarako arrisku larria izan dezaketen premiazko eta atzeraezinezko gertaerei baino ez diete erantzungo.

## **2.10. Ateko/harrerako langileak:**

Egoitzetako sarbide nagusiko atea zaintzeko eta kontrolatzeko emango da zerbitzu hori. Pertsona bakarra egongo da txanda bakoitzean, eta berau arduratuko da bisitak erregistratzeaz eta bisitarien tenperatura hartzeaz. Kontrol horretan sartuko dira bai erabiltzaileak, bai bisitak, osasun-gomendioetan ezarritako mugak bete daitezzen.

**Bigarrenena.** - Dagozkion administrazio-izapideak betez gero, aipatutako zerbitzuak aldatu ahal izango dira grebaren iraupenagatik, edo arrazoi higieniko biosanitarioak edo bat-bateko ezohiko arrazoiak direla-eta ezinbestekoa baldin bada.

**Hirugarrena.** - **1.** Agindu honen 2.1.3. zenbakian ezarritako ordenaren arabera zehaztuko da zer langilek bete behar dituzten zerbitzu horiek.

**2.** Langileen ordezkariari entzun eta gero, Enpresa Zuzendaritzak izendatuko ditu gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten langileak eta langile horiek, txandaka, bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, orain arte esandakoak eta aurreko artikuluan nahiz indarreko legedian ezarritako mugak errespetatu beharko dira. 24 ordu lehenago jakinaraziko diote sindikatu-ordezkaritzari nork bete behar dituen eginkizun horiek.

**Laugarrena.** - Agindu honen aurreko apartatuetan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontraktat joko dira eta horiek egiten dituztenak izango dira erantzule, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

**Bosgarrena.** - Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

**Seigarrena.** - Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.



**Zazpigarrena.** - Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daitekeela lan-agintaritza honetan, hilabeteko epean agindua jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko maitzaren 10ean.

**BIGARREN LEHENDAKARIORDEA ETA  
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA**